mundua guztiontzat behar ko luke

SEASKAKO INTEGRAZIO BATZORDEA

Patakon eta Ane Pirata Donibaneko ikastolara joan dira bisitan. Bertako irakaslea da Itziar, Patakonen aspaldiko laguna, eta berak gonbidatu dit u. Patakonek itsasoan bizitako abenturak haurrei kontatzea nahi du.

USTE DUT BELDURTUTA ZAUDELA. NI IKASTOLARA ETORRI NINTZENEAN DENAK BELDURTUTA ZEUDEN; DESBERDINA NINTZELA, AHALMEN URRITASUNA NUELA, EZ NINTZELA ONDO KONPONDUKO LAGUNEKIN...
ETA, ZUK, EZ ZENUEN BELDURRIK?
EZ DUT SEKULA BELDURRIK IZATEN.
PATAKONEK ERE EZ DU SEKULA BELDURRIK IZAN. ITSASO BORTITZETAN IBILI DA, ETXETIK URRUN, ETA MILA ABENTURATAN BETI.
BAI, BAINA BENETAN BELDURTZEN NAUENA GERTUKOEK ONARTUKO OTE NAUTEN ETA MAITEKO OTE NAUTEN DA. BORROKATU IZAN DUT MARRAZO BELDURGARRIEKIN, BAINA EZ NUEN MARRAZO HORIEN MAITASUNIK BEHAR.
BAINA HAUR HORIEK EZ BANAUTE MAITATZEN? EZ BAZAIZKIE NIRE ISTORIOAK GUSTATZEN? NIRE HANKA-PALOA EZ BAZAIE GUSTATZEN?

IKASTOLAKO NIRE LEHEN EGUNEAN ETXEKOAK URDURI ZEUDEN. BESTE HAURREN DESBERDINA OMEN NINTZEN.
GAUZA BATZUK EGITEA GEHIAGO KOSTATZEN ZAIT ETA BESTE BATZUK LAGUNEK BAINO ERRAZAGO EGITEN DITUT.
BEREHALA KONTURATU NINTZEN DENAK GARELA BATA BESTEAREN DESBERDINAK.
PENTSA, BELDURRAGATIK, EZ BANINTZA IKASTOLAN SARTU. PENTSA ZENBAT GAUZA GALDUKO NITUZKEEN.
ARRAZOI OSOA DUZU XANTI. ZU BAI PIRATA AUSARTA.
ZER, PATAKON, SARTUKO GARA ITZIARRENGANA?
GOAZEN HIRUROK. IKUSIKO DUZUE ZEIN LAGUN JATORRAK DITUDAN!

SEASKA

1999-2000 urtearen bueltan guraso talde batek bultzatu zuen, ikastoletan ahalmen urriko haurren eskolatzea sustatzeko. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako ikastoletan lan egiten du, desberdintasuna kabitzeko moduko eskola sortzeko helburuarekin. Seaskak urtean 50-60 ahalmen urriko haur eskolatzen ditu, adin maila guztietakoak. Horiek erdiak ikasgelan laguntzaile edo hezitzaile baten beharra du. Behar bereziak dituzten haurrei ikastoletan beren tokia bermatzen die. Haur bakoitzaren neurriko proposamen pedagogikoa lantzen du. Familia horiei babesa eta aholkularitza eskaintzen die eta eskola horien behar ekonomikoak asetzeko lan egiten du.

Ahalmen urritasuna duten pertsonen gizarteratzea bultzatzen du. Jendartearen begirada aldatzen saiatzen da, haur horien sozializazioak mesedea besterik ez baitakar, bai haur horientzat eta baita gainontzekoentzat ere.

Pouponniere Bidea, 64250 KANBO
T: 05 59 52 49 24 | F: 05 59 52 88 87